

AZAZKAL FRANTSESAK

25.1.- Adierazi beheko adierazpenak egia edo gezurra diren:

- A. Tasiok Kevinek baino hobeto zaintzen ditu azazkalak.
- B. Kevinek azala eta, oro har, gorputzaren itxura hobetzeko tratamenduak hartzen ditu Miamin.
- C. Tasiok pepinoak jartzen ditu behatzetan azazkalak ez jateko.
- D. Tasioren senarrak azazkal frantsesak egiten ditu, lizunkeriak irudikatuz.
- E. Eskisabel kapitainak azazkal frantsesak egiten dituela konturatu da Kevin.
- F. Kevini ez zaizkio batere erakargarriak iruditu Eskisabelen azazkalak.



25.2.- Ba al zenekien zer diren azazkal frantsesak? Hemen dituzu azazkal eder batzuk margotzeko bederatzi pausoak. Jar itzazu ordenan.

1. Sartu behatz-puntak uretan hiru bat minutuz.
2. Lehortzen direnean, jarri tirta bat, zuriz joango den zatia bistan utzita.
3. Lima bat erabiliz, findu eta leundu.
4. Azazkalak margotuta badituzu, ezer baino lehen ondo garbitu esmalte guztia.
5. Eman esmalte garden bat gainetik, dena babesteko.
6. Puntak margotu.
7. Ondo moztu azazkalak, eta nahi duzun forma eman.
8. Eman azpian joango den kolorea.
9. Bota kutikulak (azalak) atzera eta moztu.



25. atala: bakarka

Ikasbileko fitxa: [2332307](#)

Transkripzioa (03:06)

T- Zertan habil, Johnson?

K- Eginbehar higienikoak betetzen?

T- Eginbehar higienikoak?

K- Azkazalak mozten!

T- Eta hemen egin behar al duk hori?

K- Zer egin behar dut? Ezkutatu azkazalak mozteko?

T- Joser! Azkazal-zatiak behintzat jasoko dituk, ezta?

K- Nola nahi duzu jasotzea? hegan ateratzen dira-eta!

T- Nazkagarria duk, azkazalak airean dantzan!

K- Poeta bat zara: "airean dantzan!"

T- Eta ez haiz konturatzen zirkuituren batean sartuz gero, zirkuitu laburra izan genezakeela?

K- Tasio, zuk zer egiten duzu azkazalekin? Ea, erakutsi eskuak...

T- Utzi ezak nire eskua bakean!

K- Benga, erakutsi zure atzaparrak!

T- Ez zeukeat apenas... ez daukadala nik azkazalik...

K- Ui! Baina zure behatzek pepinoak dirudite-eta!

T- Bai, bazekiat. Azkazalak jan egiten dizkiat.

K- Bada, nik manikura egiten dut. Miamin bada leku bat non 10 dolarren truke azkazalak primeran uzten dizkizuten.

T- Benetan joaten haiz manikura egitera?

K- Eta ez hori bakarrik. Uva-izpiak, pealinga, exfoliazioa, ile tintatzea, laser depilazioa, botox-a, kriolipolisisa, drenaje linfatikoa, mikroburbuilak...

T- Aber, aber... benetan ari al haiz?

K- A, eta ahaztu gabe, iaz uzki-zuriketa egin nuen.

K- Oso modan dagoena oraintxe Miamiko gizonen artean, badakizu zer den? azkazala frantsesak egitea.

T- Azkazala frantsesak? Ba al dakik nire senarrak zer esaten dian azkazala frantsesen inguruan?

K- Bai zera! Nola jakingo dut, bada?

T- Bada, azkazal horiek ikustean beti irudikatzen duela esku bat, zera, badakik, e.. zera bat heltzen...

K- Zera bat? Zer zera bat?

T- Bai e... mondeju bat heltzen.

K- A, klaro, pelikula porno klasikoetan bezala?

T- Hori duk Antxonek esaten duena. Eske, antza handia duzue.

K- Kar, kar, bada, badakizu, nirekin oheratu! Niri ez zait inporta jo eta fuego gauden bitartean haren izena oihukatzea!

K- Pantailara hurbildu ditzakezu eskuak?

E- Zertarako?

K- Kuriositatea, besterik ez.

E- Bada, hementxe!

K- Eta mahai gainean duzun botila hori heldu dezakezu?

E- Baina, zertarako nahi duzu botila heltzea?

K- Ja! Ez nenbilen oker.

E- Zer da, Johnson?

K- Azkazala frantsesak egiten dituzula!

E- Ui... eta nolatan fijatu zara? Zer gertatzen zaio gaur honi, Tasio?

T- Ez duzu jakin nahi, benetan...

K- Besterik gabe, azkazala frantsesak asko gustatzen zaizkidala eta zuri oso ongi geratzen zaizkizu, kapitaina.

E- Mila esker, Johnson. Batzuetan pertsona normala dirudizu.

25. atala: bakarka

T- Bai, normal-normala, bai.

Erantzunak

25.1.-

- A) Gezurra
- B) Egia
- C) Gezurra
- D) Gezurra
- E) Egia
- F) Gezurra

25.2.-

1. Azazkalak margotuta badituzu, ezer baino ondo garbitu esmalte guztia.
2. Ondo moztu azazkalak, eta nahi duzun forma eman.
3. Lima bat erabiliz findu eta leundu.
4. Sartu behatz-puntak uretan hiru bat minutuz.
5. Bota atzera kutikulak eta moztu.
6. Eman azpian joango den kolorea.
7. Lehortzen direnean, jarri tiritak bat, zuriz joango den zatia bistan utzita.
8. Puntak margotu.
9. Eman esmalte garden bat gaintetik, dena babesteko.